

# Berrehun mila etorkinetik gora Espainiatik kanporatuak izan daitezke

Abenduaren 10ean amaituko zaie beren egoera legeztatzekeo jarritako epea

**D**atorren asteartean amaituko da Espainian bizi diren atzerritarrek beren egoera legeztatzekeo Gobernuak jarritako epea. Maiatzetik hona, 120.000 etorkin inguruk lortu dute beren egoera legeztatzea baina beste askok —250.000 erakunde batzuen arabera— Espainiatik kanporatuak izateko mehatxua dute gainean.

IKER ARANBURU / DONOSTIA

Etorkinak gauza berria dira Espainiaren historia modernoan, mendeetan zehar espainiarrak izan direlako beste herrialdeetara joaten zirenak. Baina azken bizpahiru hamarkadetan prozesuak alderantzizko joera hartu du. Gaur egun, milaka atzerritarrek igarotzen dituzte Espainiako mugak beraien herrialdeetan lortu ezin ditzaketen bizi baldintzen bila edo erregimen politiko autoritarioetatik ihesi.

Baina Espainia ez da paradisu eta Europako beste herrialde guztietan bezala etorkizun beltza dute kanpote- etorritakoek. Langabezia, krisi ekonomikoa, etxebizitzaren falta eta arrazismoari egin behar diete aurre. Horri, Europako Komunitateak mugak ixteko hartu erabakia gehitzen zaio. Europako herrialdeetan «gizartearentzat onargarriak diren baina etorkin gehiago» daudela argudiatzen dute.

**HEGOALDEKO MUGEN ZAINDARI**

Espainiari hegoaldeko zaindaria izatea egokitu zaio, bera baita etorkinen sorterri den Magrebeko herrialdeekin muga zuzena duen herrialde bakarra. Hori dela medio, eta nahiz eta Espainian atzerritarren kopurua txikia den —biztanleriaren % 2, Frantziaren % 6tik gorakoa den heinean— Gobernuak daudenak legeztatzekeo eta gainerakoak botatzeko plangintza prestatu zuen.

Hiru baldintza nagusi bete behar dituzte atzerritarrek Espainiatik kanporatuak izan ez daitezken: maiatzaren 15aren aurretik Espainian zeudela frogatzen duen agiria, pasaporte lege barruan izatea eta lan kontratua edo enpresa bat sortzeko proiektu fidagarria edukitzea.

Azken baldintza hau betetzea da zailena etorkinentzat, asko kalean saldutako bitxi, ordulari, gerriko eta antzeko produktuak saltzetik bizi direlako (paisha, Joxe Mari eta Iñaki izenez ezagunagoak) eta beste batzuk arautu gabeko lanetan dihardutelako. Zailtasun hauek direla eta, etorkinen elkarteak (AEME) legeztatze epea luzatzea eskatu dio etengabe Gobernuari. Horrela ez izatekotan, AEMEk Espainian bizi diren atzerritar guztiak mobilizatuko dituela iragarri du.

Hala ere, ez da hor bukatzen etorkinen arazoa, hemendik urtera edo



Espainian bizi diren etorkinen erdia Magrebeko herrialdeetatik dator.

LUIS FERNANDEZ

Marokko	44.392
Argentina	5.014
Dominikar Errepublikak	4.717
Senegal	4.138
Txina	3.653
Peru	3.472
Polonia	2.615
Filipinak	2.596
Beste herrialdeak	25.743

urte t'erdira lan kontratua amaitzen zaienean orain kanporatutakoen arrisku bera daukate eta. Horren irtenbidea, Gobernuak egoitza baimenak luzatzeko konpromezua hartzea da eta batez ere, Atzerritarren Legea aldatzea. Lege honek oztopo handiak jartzen dizkie Espainian bizi nahi duten atzerritarrei, lan baimeak langabezi merkatuaren beharren arabera ematea finkatzen duelako.

**LAN KONTRATU FALTSUAK**

«Erregularizazio prozesua» izenez ezagutzen dena hasi zenetik, ez dira falta izan atzerritarren larraldien kontura aberasten saiatu direnak lan kontratu edo pasaporte faltsuak diru truke eskaintzen. Ustelkeriak Marokok Madrilen eta Barcelonan dituen konsulatuetan busti ditu ere bai. Etorkinak 100.000 pezeta ordaintzera iritsi dira zenbait kasutan, pasaporte lege barruan jarzteko; 15.000 pezeta lan kontratu faltsuen truke eta beste hainbat

**✓** Hiru baldintza nagusi bete behar dituzte atzerritarrek Espainiatik kanporatuak izan ez daitezken: maiatzaren 15a aurretik Espainian zeudela frogatzen duen agiria, pasaporte lege barruan izatea eta lan kontratua edo enpresa bat sortzeko proiektu fidagarria edukitzea.

maiatzaren 15aren aurretik Espainian zeudela frogatu nahi duten eskutitz edo mediku agiri faltsuak izatearren.

Maiatzaren aurretik Espainian zeudenean beren aukera izan badute ere, ez da berdin gertatzen ordutik hona etortzen saiatu direnekin. Iaz 80.000 etorkin ilegal —marokkiarrak batez ere— atzeman zituen Poliziak Gibraltarreko itsasarte igarotzen ari zirela edo jadanik lurreratu zirela. Aurten kopurua handitu daiteke, udan zehar batez ere egunero hogeitamarren bat atxilotu dituztelako Tarifa inguruan batipat.

**MAROKKIARRAK BATEZ ERE**

Espainian bizi diren lege kanpote atzerritar gehienak marokkiarrak dira eta herrialde hauetakoak dira muga zeharkatzen gehien saiatzen direnak. Marokkiarren krisi ekonomiko eta Hassan IIaren erregimen politikotik ihes datoz. Krisi ekonomikoaren arrazoitariko bat hazkunde demografikoa izan da. Egoera are okerrago izan daiteke hemendik urte gutxira, Magreb eta Mediterraneo hegoaldeko beste herrialdeetan bezala —Arjelia, Tunisia, Egipto, Turkia—

, Marokkon 15 urtetik beherakoa da biztanleriaren % 40. Gazte hauek lan merkatura iristen direnean ez da lan nahikoa izango eta askok Europara emigratzeko erabakia hartuko dute.



**GALIZIAREN** autodeterminazioa eskatzen zuten milaka lagun bildu ziren atzo Compostelan BNGren deialdiari jarraituz. Blokeko zinegotzi, alkate eta parlamentariez gain, Galiziaren independentzia eskatzen zuten alderdi txikiak ere izan ziren manifestazioan. 1978ko Konstituzioaren hamahirugarren urteurrena betetzen zen egun berean, BNGk aldaketa egitea eskatu zuen, bere baitan nazioen autodeterminazio eskubidea sar dadila eskatuz.

**Auzibideak bidera daitezke TBn arrazakeriak esan zituztenen aurka**

A.S. / BAIONA

Philippe Marchand, Frantziako Barne ministroak Henri Nallet justizia ministroari eskatu dio auzibideak bidera ditzan joan zen astearte gauean Antenne 2 frantses telebista katean plazaratua izan zen emanaldi baten ondoren. «Mardi soir» izeneko saio honetara mutur eskuineko talde batzuen ordezkariak gomitatutak izan ziren eta hauei aurre egiteko hor zeuden ere PSko diputatu bat eta giza eskubideen ligako lehendakaria.

Emanaldi honetan mintzatu egin ziren bi pertsonen hitzak ditu auzibidegai hartu frantziar barne ministroak, nahiz eta saio guztian sekulako arrazakeria adierazpenak egon ziren. Claude Cornilleau PFNE (Frantzia eta Europako Alderdi Nazionalista) nazismoaren asmoetatik hurbil azaltzen den talde baten buruzagiak, besteak beste, erran zuenez: «inmigratuen munduan murgiltzen den gaiztagintzak erasotzen gaitu egunero». Bestalde, erreportaria batean agertzen zen skinhead batek zioenez: «Nik nahi dut Europa xuri bat, komunista, judio eta araberekin gabe. Gas ganbarak? Izan ziren eta nahiko ongi da; hauekin bide eraginkor bat atzema izan zen».

Mutur eskuineko kide horien hitzek eskuin gogorreko norbaiten harridura sortzea lortu zuten ere.

Izan ere, Yvon Briant CNI (Independienteen Zentru Nazionala) alderdiko agintariak emanaldiaren arduradunari aditzera eman zuenez zuzenean: «demokraziaren arauak zangopilatzen dituztenei, demokraziak eskentzen dituen adiarazbideak ematen dizkiezue».